



Plater **hauek guztiak** garbitu behar dituzu.  
Plater **guzti hauek** garbitu behar dituzu.





# Erakuslea + *guzti* zenbatzailea

Euskara batuan, ***hau guztia*** ordena dago hobetsita; hots, lehenik erakuslea (*hau, hori, hura*) eta bigarrenik zenbatzaile orokorra.

Eta bi-biek (erakusleak zein zenbatzaileak) deklinabide-atzizkia eramaten dute: atzizki berbera.

# Erakuslea + *guzti* zenbatzailea

- Baina metodo **horiek guztiek** gehiegi murrizten dute nekazariak erabil dezakeen gari kopurua.

*Virginiako Estatuari buruzko galderak*, Thomas Jefferson. Euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta, EHU, 2012.

- Hogeitaka urte daramatzazue gobernuan eta zer aldatu duzue urte **horietan guztietan?**

*Azken afaria*, Xabier Montoia, 2013.

- Garai batean, gauza **horiei guztiei** begiratzean, pentsatzen nuen: zoriontsu dira bata besteagatik.

*Odolaren sua*, Irene Nemirovski. Euskaratzailea: Jose Antonio Sarasola, 2012.

- Alde **horietatik guztietatik**, inpresioa daukat Uribe dela hobekien kokatuta dagoena ...

*(Euskal) literaturaren alde (eta kontra)*, Iban Zaldúa, 2016.

- Hala ulertzen dute Descartesek (XVII), Kantek (XVIII) ... eta mende **horietako guztietako** zientzialariek.

*Soziologia eta hezkuntza*, José Taberner. Euskaratzailea: Patxi Petrirena, EHU, 2009.

# Erakuslea + *dena* zenbatzailea

Ordena horri berari jarraitu behar zaio *dena* zenbatzailea erabiliz gero:

- Juliak ezagutzen ditu pasadizo **horiek denak**.

*Martutene, Ramon Saizarbitoria, 2012.*

- Ezaugarri **horiek denek** egin zuten esku-soinua herri xehearen tresna izatea.

*Elgeta, sasiaren sustraiak, Koldo Izagirre, 2001.*

- Joseba Sarrionandiak aipatzen dituen pasarte **horietan denetan**, (...) sinbologia desberdinen aztarnak dira (...)

*Saski bete intxaur, Patziku Perurena, 2012.*

- (...) baina behartuta nago baietzarekin erantzutera galdera **horiei denei**.

*Jakin aldizkaria, 181. zbk., 2010.*

**Oharra:** testu idatzietan, *dena* zenbatzaileak erabil-maiztasun oso txikia du *guzti* zenbatzailearen aldean.